

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Dirulaguntza deialdia Gaubeako auzo eta administrazio batzarrentzat, argiteria publikoak eragindako gastuak finantzatzeko

Udalbatzak, 2021eko uztailaren 30ean balio osoz egindako osoko bilkuran, erabaki zuen argiteria publikoa dela-eta egindako gastuak finantzatzeko Gaubeako auzo eta administrazio batzarretarako dirulaguntza deialdia eta deialdi hori arautuko duten oinarriak onestea. Horren ganean hartutako erabakietan hirugarrena betez, oinarri horiek ALHAOn argitaratzen dira, objektibotasun, lehia eta publizitate printzipioak bermatzeko.

Gaubea, 2021eko urriaren 13a

Alkate-lehendakaria
GORKA SALAZAR SENSO

Argiteria publikoa dela-eta egindako gastuak finantzatzeko Gaubeako auzo eta administrazio batzarretarako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak

2021eko deialdia

Lehenengoa. Xedea

Oinarri hauen bidez arautzen diren dirulaguntzen xedea da udalerriko herrietan argiteria publikoak 2020an eragindako gastuak ordaintzen laguntzea.

Bigarrena. Erakunde onuradunak

Gaubeako udalerriko auzoek eta administrazio batzarrek eskuratu ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak eman eta, hala badagokio, ordaintzeko, eskaera egiterakoan abian den itzulketa edo zehapen prozedura oro bukatuta egon beharko da, baldin eta laguntza edo dirulaguntza bertsuak direla-eta abiarazi baditu prozedurok Gaubeako Udalak.

Hirugarrena. Onuradunek dirulaguntza edo laguntza lortzeko bete beharreko baldintzak eta horiek betetzen direla egiaztatzeko era

Ezinbestekoa izango da eskaera eta oinarri hauetan eskatutako gainerako agiriak adierazten den eran eta epean aurkeztea.

Laugarrena. Agiriak

Oinarri hauetan araututako dirulaguntza deialdian parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ondoko agiri hauek aurkeztea:

a) Eskabidea, I. eranskineko inprimakiaren arabera.

b) Argiteria publikoagatik 2020an ordaindutako fakturen kopia osoa, edo fakturazioa dela-eta enpresa hornitzaileak emandako ziurtagiria(k), non fakturazioaldiak eta aldi horietako bakoitzaren zenbatekoa adieraziko diren.

Ziurtagiriak aurkezten badira, gastuari buruzko ordainagiriaren kopia oso eta egiaztatua aurkeztuko da, gutxienez.

Kasuan kasuko herriek 2020an egiten duten argindar kontsumoaren fakturak aurkeztuko dituzte argindarrez hornitzen duten administrazio batzarrek, edo fakturazioa dela-eta enpresa hornitzaileak emandako ziurtagiriak, non jasoko diren fakturatutako aldiak eta aldi bakoitzari dagokion zenbatekoa; gainera, lehendakari-errejidoreak eta fede emaileak izenpetutako ziurtagiria erantsiko da, kasuan kasuko herriak argiteria publikoa dela-eta 2020an egindako kontsumoagatik ordaindutakoari buruzkoa.

Enpresa elektrikoaren ziurtagiriak aurkezten badira, gastuari buruzko ordainagiriaren kopia oso eta egiaztatu bat aurkeztu beharko da, gutxienez.

c) Helburu bererako beste sarrera publiko edo pribaturik jaso izanari buruzko zinpeko adierazpena. Gastu hori beste laguntza edo baliabide batzuekin finantzatu bada, horien zenbatekoa eta jatorria egiaztatu beharko dira, II. eranskinaren arabera.

d) Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluko 2. eta 3. apartatueta xedatutako egoeraren batean ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena (III. eranskina).

e) Ziurtagiria, administrazio batzarreko errejidore-lehendakariak eta fede emaileak izenpetua (eskatzaileak auzoak direnean, alkate-lehendakariak eta idazkariak izenpetua), aurkezten diren fakturak ordaindu direla egiaztatzen duena.

f) Erakunde eskatzailearen IFKren kopia.

Herri bat baino gehiago hartzen duten administrazio batzarrek herri bakoitzeko eskaera bana aurkeztu beharko dute.

Bosgarrena. Aurkeztutako agirietan egindako akatsen zuzenketa

Dirulaguntza eskaerak ez badira aurkezten behar bezala beteta eta oinarri hauetan eskatutako agiri guztiak eta osagarriak dituztela, erakunde eskatzaileari errekerimendua egingo zaio hutsak zuzen ditzan edo falta diren agiriak aurkez ditzan gehienez 10 eguneko epe luzaezina duela adieraziko litzaioke erakunde eskatzaileari hutsak zuzentzeko edo falta diren agiriak aurkezteko 10 eguneko epe ezin luzatuzkoan; hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela esan nahiko du, horretarako ebazpena eman ondoren, hala xedatzen baitu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 21. artikuluan, 68.aren lotuta.

Seigarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

Dirulaguntza eskaera aurkezteko azken eguna abenduaren 15a izango da.

Agiri guztiak Gaubeako Udalaren erregistro orokorrean aurkeztu behar dira (Jesus Ginea arkitektoaren kalea, 46. 01426, Uribarri Gaubea), edo Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan xedatutako eran.

Dirulaguntza hauek jasotzeko eskabideak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa formalki eta espresuki onartzea.

Ezin izango dituzte dirulaguntza hauek eskuratu Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan aipatzen dituen arau hausteengatik zigortuek.

Zazpigarrena. Dirulaguntza emateko prozedura eta irizpideak

Alkate-lehendakariak emango ditu dirulaguntzak, lehiaketa bidez, informazio batzorde orokorrrak proposatuta. Batzordeak, proposamen hori egiteko, egoki irizten dituen aholku teknikoak eskatu ahal izango ditu.

Informazio Batzordeak ezin du proposatu, inola ere, oinarri arautzaileetan ezarritakoa urratzen duen dirulaguntzarik emateko.

Administrazio batzarrek edo auzo onuradunek benetan egindako gastuaren arabera banatuko da urteko diru esleipen erabilgarria.

Zortzigarrena. Laguntzen muga orokorrak

Esleitutako zuzkidura gainditzen bada, deialdi honetan araututako laguntzak ezetsi edo mugatu egin ahal izango dira.

Eskaerak udal aurrekontuan xedatutako diru partida baino gehiago egiten badute, diru partida hori Informazio Batzordeak banatuko du 7.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bederatzigarrena. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, herri bakoitzak argiteria publikoa dela-eta beneratzen egindako gastuaren ehuneko 50 izango da. BEZa ez da diruz lagunduko.

Hamargarrena. Bateragarritasuna beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin

Deialdi honetan ezartzen diren dirulaguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok edo pribatuk helburu berarekin eman ditzakeen beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta horrek ez badu gehiegizko finantzaketarik sortzen. Halakorik gertatuz gero, hau da, jasotako laguntzen edo dirulaguntzen guztizko batura jarduerarako onesten den aurrekontua baino gehiago bada, gaindikina kenduko zaio dirulaguntzaren zenbatekoari.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen kopurua ezingo da izan, inolaz ere, bakarrik zein beste batzuekin batera, erakunde onuradunak egindako gastua baino gehiago.

Hamaikagarrena. Dirulaguntza emateko epea eta ebazpenik ezaren ondorioak

Ebazpena emateko epea hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik aurrera.

Ebazpena epe horretan ematen eta jakinarazten ez bada, eskaera ezetsizat jo beharko da.

Hamabigarrena. Dirulaguntza justifikatzeko epearen amaiera

2020ko ekitaldiari dagozkion gastuak direnez gero, eskaerarekin batera aurkeztu beharko dira erakunde onuradunak egindako gastuak ordaindu izana egiaztatzen duten agiriak.

Hamahirugarrena. Onuradunak dirulaguntzaren helburua bete duela eta dirua zertarako erabili duen justifikatzeko era

Erakunde onuradunek dirulaguntza eskaera aurkeztean egiaztatuko dute diruz lagundutako gastuak ordaindu dituztela. Horretarako, 4.1.e) oinarrian aipatzen den ziurtagiria aurkeztuko da.

Hamalagarrena. Dirulaguntza ordaintzea

Dagokion ebazpenak adierazten duen epean ordainduko da dirulaguntza, banku transferentzia eginda erakundeak eskaeran emandako kontu zenbakira.

Hamabosgarrena. Emandako dirulaguntzaren aurrerakinak egiteko aukera, horretarako modua eta onuradunek aurkeztu beharreko bermeak

Ez dago aukerarik emandako dirulaguntzaren aurrerakinak egiteko.

Hamaseigarrena. Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezaketen egoerak

Dirulaguntza ematea onartzen duen ebazpena aldatu egin ahal izango da, udalak gerora jakingo balu erakunde onuradunak helburu bererako beste laguntza, dirulaguntza edo diru sarre-raren bat jaso, eta ez zuela jakinarazi dirulaguntza eskatzean beste dirulaguntza hori jaso izana.

Hamazazpigarrena. Dirulaguntza itzultzea

Dirulaguntzaren zenbatekoa beste dirulaguntza, laguntza edo diru sarrera batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren gastuak egiten duena baino gehiago bada, baliogabetu egingo da eta, hala dagokionean, soberakina itzuli egingo da.

Hemezortzigarrena. Dirua itzultzeko prozedura

Dirulaguntzaren baliogabetze eta itzultze prozedura izapidetzean, onuradunaren eskubidea bermatuko da entzuna izateko eta, egoki jotzen dituen alegazioak aurkeztuz, bere jarduna aldezteko.

Hemeretzigarrena. Erakunde onuradunen betebeharrak

Oinarri hauek arauturiko dirulaguntzen auzo eta administrazio batzar onuradunek honako betebeharrak beteko dituzte beti:

- Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hamar egunetan onuradunak dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten ez badio, onartu duela esan nahiko du.
- Dirulaguntza zertarako eman den, horrexetarako erabiltzea.
- Gaubeako Udalaren Kontuhartzaitzari egiaztatze edo finantza kontroleko jarduerak egiten uztea.
- Gaubeako Udalari jakinaraztea helburu bererako beste dirulaguntzarik, laguntzarik edo sarrerarik jaso den.
- Gaubeako Udalari egiaztatzea dirulaguntza emateko betekizunak eta baldintzak betetzen direla.
- Udalak eskatzen dituen agiriak ematea hari, eta emandako dirulaguntzaren inguruko eskakizun orori erantzutea.
- Gaubeako Udaleko Kontuhartzaitzak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatutako informazio guztia ematea.
- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta dirulaguntzen udal ordenantzak ezarritako betebeharrak.

Hogeigarrena. Dirulaguntzetarako kreditua

Dirulaguntza hauek emateko, 30.000,00 euro erabiliko dira guztira, Gaubeako Udalaren 2021eko ekitaldirako 165.434000 partidatik.

Hogeita batgarrena. Informazioa eta aholkularitza

Gaubeako Udalak informazioa, laguntza, argibideak eta aholkuak emango dizkie deialdi honen barruan dirulaguntza eskaera aurkezten duten auzo eta administrazio batzarrei, hala eskatzen badute.

Hogeita bigarrena. Errekurtsoak

Erakunde interesdunek deialdi honen eta deialdi honetatik sortutako egintza guztien aurka jo dezakete, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako epe eta eretan.

Hogeita hirugarrena. Azken klausula

Oinarri hauetan arautu ez den edozertarako, hauek xedatutakoa beteko da: Gaubeako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra (2006ko urtarrilaren 27ko ALHAO, 11. zk.); azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, onesten duena azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudia; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta aplikagarri diren gainerako arauak.

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Gaubeako Udalak ebaziko du.

I. eranskina

Dirulaguntza eskaera, argiteria publikoak 2020an eragindako gastuak ordaintzeko

..... jaunak/andreak (NANA:,
jakinarazpenetarako helbidea:), auzoko
alkateak edo administrazio batzarreko erregidore-lehendakariak (helbidea:;
telefonoa:; faxa:; e-maila:), hau

Adierazten du

..... herriak argiteria publikoa dela-eta 2020an egindako gastuak
finantzatzeko Gaubeako auzoei eta administrazio batzarrei dirulaguntzak emateko deialdia
ikusita, eta deialdian bertan adierazitako oinarrien berri izanda,

Eskatzen du

Gastu horiek finantzatzeko dirulaguntza eman diezaiotela. Horretarako, deialdiaren 4. oina-
rrian aipatutako agiriak aurkezten ditu.

Dirulaguntza emanez gero, ordezkatzan dudan erakundearen kontu zenbaki honetan sartzea:

Erakundea:

Kontu korrante edo libreta zenbakia:

Titularra:

NANA:.....

....., 2021ekoaren(a).

(Erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua).

Gaubeako Udaleko alkate-lehendakariari.

II. eranskina

(Xede bererako bestelako diru sarrerarik lortu ez bada)

.....jaunak/andreak, auzoko alkateak edo
administrazio batzarreko erregidore-lehendakariak, hau

Hau aitortzen du zinpean

Ordezkatzan duen erakundeak ez duela inolako diru sarrera publiko edo pribaturik esku-
ratu..... herriak argiteria publiko dela-eta 2020an egindako gastuak finantzatzeko.

....., 2021ekoaren(a).

(Hala badagokio, erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua)

II. eranskina

(Xede bererako bestelako sarrera batzuk lortu badira)

.....jaunak/andreak, auzoko alkateak edo
administrazio batzarreko erregidore-lehendakariak, hau

Hau aitortzen du zinpean

Ordezkatzen dudan erakundeak (adierazi erakundea, elkartea...) euroko
dirulaguntza edo laguntza, herriak argiteria publikoa dela-eta 2020an
egindako gastuak finantzatzeko.

....., 2021ekoaren(a).

(Hala badagokio, erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua).

III. eranskina

Zinpeko aitortpena

.....jaunak/andreak, auzoko alkateak
edo administrazio batzarreko erregidore-lehendakariak, hau

Zinpean aitortzen du, argiteria publikoa dela-eta 2020an egindako gastuak finantzatzeko
Gaubeako Udalak ematen dituen dirulaguntzen deialdiaren harira, ordezkatzen duen erakun-
dea ez dagoela Dirulaguntzen orokorren azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 13. artikuluko 2. eta 3.
apartatuetan ezarritako inongo egoeratan.

Eta behar den tokian hala ager dadin sinatzen du.

....., 2021ekoaren(a).

(Hala badagokio, erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua).